


Nafarroa karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994eko urtarrilak 14 / IV. urtea / 110. zenbakia

Mixel Aire, artzaina

Urepelen jaioa, Xalbadorrean, Ferdinand Aire 'Xalbador' bertsolari ia mitikoaren semea, Mixel Aire Iparraldeko bertsolarien artean ezagunena eta estimatuenetakoa dugu. Bertsolaria diogu, nahiz eta bera, izan, artzaina dela dioen. Sorogainen duen etxolatik heldu berria harrapatu genuen Pokomoztenea bere etxean, eta afari goxo baten ondoren, bertsolaritzaz, artzaintzaz, euskaraz, Urepelez... mintzatu ginen. Eta bertso saioetara «bortxaz» doan laguna agertu zitzaigun, kantatu bitartean lana gogoan duen artzaina; Urepelez saminez hitz egiten duen urepeldarra, eta euskara eta Euskal Herriaren geroaz ezkortasunez mintzaten den euskalduna, gizon sentikor eta zintzoa. Agertu zizkigun txapelketara joateko bere duda-mudak, baina bertsolaritzarako bere atxikimendua; geroan, «zahartzaroaren goxotasunean» idazteko bere gogoak, abertzaleen arteko bereizketaz bere ondoeza...



Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA



Baltasare txapeldun

Tu eres de los reyes o del Olenchero? eguberrian parrastan ibili da galdera Iruñeko umeen artean. Bagenekien nafar gizartea erabat bi erdi eginik bizi dela bere identitatearen ariaz, baina harritzekoa da ikustea nola hain umetandik hasi behar duten hemengo umeek definitzen, edo hobeki esan, nola behartzen ditugun hain umetandik definitzera. Harritzekoa eta mintzekoa ere bai. Gu umeak ginela, ordea, batasun monolitikoa zegoen nonnahi, Francoren makila bategilearen ondorioz-edo: Orienteko hiru erregeek ekartzen zizkiguten ekarri beharrezkoak guziori. Ez dut, halare, abertzaleen gain bota nahi umeen adskripzio goizegikoa bortzatzearen erru osoa, zatiketa lehenagotik baitzetorren asunto horretan. Baina haiek ere beren ahal dutentxoa egin dute horretan —ezin uka— errege eguna bezala guziona zen tradizio bat erauzi, eta haren ordez euskal tradizio desnaturalizatu bat ezartzera ahalegin-duaz.

Gogoeta horiek hartua nindutela, hara non komentario bat aditzen dudana, oso mugaz, irratitik: «el Rey Baltasar avanza seguido de un nutrido cortejo de indígenas». Indigena, hiztegiak gezurra ez badio, bertan sortutakoari deritza, batez ere kanpotik etorri eta bertakotu gabe bertan bizi direnei kontrajartzeko. Duda gutxi, beraz, hemengo indigenak zein diren. Baina lepoa luzatu eta indigena haiei begia botako zienak, ez zuen ikusiko txapelik ez abarkarik, ez lanazko galtzerdi hazkure-emailerik ez ardilarra gainean aldaka sendoetan lotutako dunba haundi burrunbaririk. Ez. Zer, eta beltzak aizu! Horiek omen hemengo indigenak! Eskandaloaren latza! Saldukeriaren gogorra! Nahikoa dugu, redios! Indigena-kontu, geu gara nahiko eta sobra indigena, Kristo sortu zen tokira bila joan gabe! Beraz, eta hasieran ahotan nuen umeen zatiketa goizegikoarekin lotuz, hona hemen, laburki, nere proposamena: Kohesio sozialaren mesedetan, eta gehienak bat baikatoz umeek kalte dutela goizegi taldetzea eta markatzea, batu dezagun sekulan berezi behar ez zena, eta bil ditza-gun kabalgata eta Olentxero, euskal eta erdal kitschak inoiz sortu dituen produkturik akabatuenok, ospakizun nazkagarri bakar batean, anaitasun haundiz lehenago bezala, denak junto joaten baikin, abertzale zein navarrista, arratsalde bat elkarren amodio ederrean pasatzera, urte guziaz gorroto fuertean pasatzen genuen bezala. Kabalgatako ikuskizun tradizionalen txerta dezagun indigenismo zerbait, baina geure-geurea, gero, e! beltz kanpokeria horien ordez euskaldun basagizonak jarriaz. Hirugarren erregeak bederen gure behar du: Baltasare txapeldun.

ERAKUSKETAK



Ana Mari Marin Baztango artistaren erakusketa zabalik dago Iruñean, Aurrezki Kutxa Muzikazaleen Zentroaren kalean duen aretoan. Azken bi urteotan egindako lanak daude ikusgai, eta urtarrilaren 30a arte iraunen du. Ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara.

'Amerikako argazkiak' izeneko erakusketa zabalik dago Elizondoko Kultur Etxean. Udalak antolatuta, otsailaren 4a arte iraungo du, ohizko ordutegiarekin.

Juan Satrustegi Lizarrako artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Banco Atlanticoaren kultur aretoan. 'Gure mendizkoak': Lokitz, Urbasa eta Andia' izenburupean, urtarrilaren 31 arte izango dira ikusgai margolariaren olioak.

ZINEMA



'Gerraren kontrako zinema astea' antolatu du datorren asteko Iruñean SOS Balkanes taldeak. Astelehenean ostegunera, arratsaldeko 19.30etan hasita, zenbait pelikula eskainiko dituzte. Astelehenean 'Armas al hombre' eta 'Hagase la luz', asteazkenean 'La vida y nada más', eta ostegunean 'Urbanicidiodiario de Sarajevo' eta Bosniako telebistaren dokumentalak botako dituzte. Ateratzen den dirua gerrako kaltetuei laguntzeko erabiliko da.

HITZALDIAK



Patziku Perurena idazle leizarrak hitzaldia emanen du datorren ostegunean, urtarrilak 20, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarrean, arratsaldeko 20.00etan hasita.

IKASTAROAK



Ipar eski, pistako eski eta eski alpinoko ikastaroak antolatu ditu asteburu honetarako Nafarroa Kirol Elkarteak. Larunbat eta igandean izango dira, eta apuntatu nahi duenak Elkartearen egoitzara hurbiltzea (Jarauta 78) edo 22 43 24 telefonora deitzea besterik ez du.

Aisialdirako monitore ikastaroa hasiko da hilabete honen amaieran Tuteran, bertako Gaztedi eta Kirolletako batzordeak antolatuta. Urtarrilean hasi eta apirilera arte iraunen du, eta saioak asteburuetan izango dira.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Etorkizunerako erabakia

Mendi txirindulaz egiteko ibilbidea aukeratu dugu asteburu honetarako, Nafarroa Oinezen egon ondoren, bertako mendiak hobeki bisitatzeko txirrintaz gelditu baldin bazinen. Ez zen egunik aproposena mendian barna aritzeko, lohia nonnahi baitzegoen, gonbidatu gabeko bisistaria, alegia. Hala ere, ohartuko zinen ze kolorea zuten zuhaitzek eta ze edertasuna ezkutatzen zen mendien magalak soilik ikusten uzten zuten lainoen azpian. Hori dela eta, Sakanako Kirol Batzordeak antolatu duen ibilaldiari eutsi egingo diogu, galdu zenuenaren ideia txikia, sikiera, hartzeko.

Txangoa igandean izango da, eta goizeko 9.30etan aterako da Altsasuko Mendigoizaleek Isidoro Melero kalean duten egoitzatik. 45 kilometro denetara, lau ordu t'erdia inguru eman behar dira ibilbidea egiteko, eta bertan Alzania eta Arabako hainbat mendi dotore oso bisitatu ahal izango dira.

Altsasutik, esan bezala, Zelanditik eta Ulaiarretik, Zegamara joateko hartu behar den bihurturera helduko gara, hortik Urdalurrera daraman

bidea hartzeko. Altsasuko urtegi berriak nahiko itsutu du ingurua, baina badakizue, urtegiak urtegiak dira, eta Burundako herriak behar beharrezkoa zuen, inork ez du dudan jartzen. Urdalur utzi ondoren, Txorrokopuntaren magaletik, Egin gainean dagoen Lezeko Hoyara helduko gara, Olanotik

lohia nonnahi izango dela, franko, eta ongi prestatuta joateak merezi duela, Sakanako txirindulariak apartak baitira. Ondo ezagutuzen ditugu.

Araian, errepidera daraman bidea aparte utzirik, Lezera, eta hortik Eginora, bideberritik hurbil. Orduan hartuko dugu Olaztiko bidea, eta hortik zu-




gertu, eta hortik abiatu beharko dugu, Apotatik, gertu ikusten den Araiaino, Araban dagoeneko.

Araian, errepidera daraman bidea aparte utzirik, Lezera, eta hortik Eginora, bideberritik hurbil. Orduan hartuko dugu Olaztiko bidea, eta hortik zuzen-zuzen berriro Altsasuraino heltzeko. Lehendabiziko zatia da bereziki polita, bertako ehiztari eta mendizale porrokatuek izan ezik oso ezaguna ez den inguruak zeharkatzen baitira. Hori bai gogoratu

zen-zuzen berriro Altsasuraino heltzeko. Lehendabiziko zatia da bereziki polita, bertako ehiztari eta mendizale porrokatuek izan ezik oso ezaguna ez den inguruak zeharkatzen baitira. Hori bai gogoratu lohia nonnahi izango dela, franko, eta ongi prestatuta joateak merezi duela, Sakanako txirindulariak apartak baitira. Ondo ezagutuzen ditugu tzen baitira. Hori bai gogoratu lohia nonnahi izango dela, franko, eta ongi prestatuta joateak.

ASTEKO PERTSONAIAK



Fermin Ezkurra
Osasunako presidentea



Jose Luis Uriz
PSNko parlamentaria

Berriro ere, Osasunari buruz hitz egin behar txoko honetan, eta zergatia, nola ez, talde nafarraren egoera larria. Gauzak dauden bezala geratuko balira, zuzenean hartuko luke bigarren mailarako bidea. Hala ere, itxaropena oraindik badago, baina asko aldatuko beharko du gorritxoan jokatzeko moduak. Fermin Ezkurra presidentea, egoera nolakoa den ikustean, bilera izan du aste honetan jokalariekin. «Lan gehiago egin behar da», izan zen bere mezua. Baina ahalegin horren truke jokalariek ez dutela diru gehiago jasoko azpimarratu zuen presidentea. Jokoari dagokionez, taldearen abiadura falta nabarmendu zuen, «aurkariak gu baino lehenago iristen dira baloia hartzera; ez dakit jokalariek nekaturik dauden, edo arazoa bestelakoa den».

PSNko kritiko nabarmenenetakoak galdu egin zuen Atarrabian, bere herrian bertan, kongresurako hauteskundeetan, Isabel Ibañez aukeratu baitzuten bertako bazkideek. Tajaduraren kidekoak, beraz, ezin izango ditu bere tesiak defenditu urtarrilaren 25ean egingo den kongresuan. Oraingo zuzendaritzaren tesiak, horrela, nagusitasun handiz gailenduko dira orduan, kritikoei, gutxi izateaz gain, beren aldeko bazkiderik ezagunenetakoa galdu baitute. Emaiza erdipurdikoa da, baina, Atarrabiako biltzarrak onartu baitzuten Urizen aldekoek bulztatu nahi duten txostena kongresura eramatea, bertan ez baida dezaaten. Atzo bertan Iruñeko biltzarrak aukeratu behar zituen 21 ordezkari berri.

AHAZTU GABE!

JAIK

San Sebastian eguna izango da heldu den asteko ostegunean, urtarrilak 20, eta dagoeneko, Nafarroako zenbait herritan hasiak dira prestakizunetan. Tafallan, Zangozan eta Lakuntzan, besteak beste, ospatzen dira bereziki jai hauek, negukoak edo herriko 'jai txikiak' deitzen direnak. Tafallan eta Zangozan asteburu honetan hasiko dira ekitaldiak, abesbatza zenbaiten kontzertuak, poesia eta musika instrumentaleko emanaldiak, txistulari, gaitero eta gainerako ekitaldiekin. Patroiaren egunean, prozesioa eta mezaren ondoren, musika eta berbena guztientzat, neguari aurre egiteko bikaina. Lakuntzan, berriz, danborrada egingo dute laugarren aldiz, Lakuntzako Pertza elkarteak antolaturik: herriko gazteak eta ez hain gazteak, txuriz jantzi, danborra hartu eta kalera ateratzen dira. Hau bezperan izango da, heldu den asteazkenean. Patroiaren egunean, goizetik lakuntzarrak Sansasin baselizara abiatzen dira, meza entzun eta gero, txokolatea eta mistela jan eta edatera. Arratsaldean eta gauean, noski, berbena, txaranga eta parranda.

JENERO XUMEKOAK

Illemoztailearekin mintzatu eta geroko ariketa

Nolatan ausartzen zara besteei ixilekoa gordetzeko esatera? Ez zenuen hori esan beharrik, zerorrek gorde bazenu.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarizketak.



Altsasu

Jaialdi ederra dantza taldearekin

AMAIA AMIUBIA / ALTSASU

Hirurehun lagun inguru bildu ziren joan den larubatean Burunda pilotalekuan, Altsasuko Dantzari taldeak urtero eskaintzen duen dantza jaialdiaren barruan. Bertan arras ongi ikusi zen talde honen isileko lana, eta Sakanako Trikitilariak, Kostakosoi Gaita taldeak, Zangitu Fanfarreak, Txalapartariak, eta Itziar eta Erkuden bikoteak Altsasuko dantzariak ikasi berri dituzten dantzak tartekatu zituzten. Bizia eta koloretsua izan zen inguruko musikari eta dantzarien arteko saioa.

Altsasuko Dantzari Taldearen osasuna eta bilakaera jarri zuen agerian larunbateko saioak, eta berrikuntzak nagusi izan ziren. Horrela, Luzaideko bolantak, hiru soinu zahar —'Txakoli', 'Hortxulo' eta 'Punta Motz'— eta Tolosako San Juan Zortzikoa ikusi eta entzun ahal izan ziren larunbatean. Horiez gain bikotekako fandango eta arin-arinak ere dantzatu zituzten taldekoek. Jaialdiaren hasiera eta bukaera koloretsuak izan ziren oso, Nafarroako eta Zuberoako ihaute-rietako dantzen bidez. Luzaideko bolanta et polkak dantzatu zituzten hasieran eta Zangitu Fanfarrearen soinuen bitartez Zuberoako Maskaradako bost pertso-



Mota guztietako dantzak eskaini zituen taldeak.

naia aurkeztu zituzten, dantza saioari jauziz beteriko bukaera eskainiz. Gainera, lehendabizi hartu zuen parte Altsasuko Kostakosoi Gaita taldeak dantzari-

kin, eta Rigodoi tanda eta bals bat eskaini zituen talde gazte honek. Itziar eta Erkuden bikoteak hiru kanta abestu zituen: 'Ur Goiena' —urte berriaren lehen minu-

tuan abesten dena—, 'Mendigaina' eta 'Isiltasuna'. Sakanako Trikitilariak ere kalejira eta porrusaldaz gain 'Iritsiko eguna' jo eta kantatu zuten.

Iruñea

ARTXIBOKOA



Zabor pila hiri erdian

Berriozarrera doan errepidearen eta Iparreko Ingurabidearen arteko gurutzean kontrolik gabeko zaborra pilatu da udatik hona, zaborrontzi bat bertan utzi eta gero. Eguzki talde ekologistak salatu duenez, ez Iruñeko Udalak ez Mankomunitateak ez dute ezer egin arazoa konpontzeko, «nahiz eta ahoz eta erregistroan aurkeztutako idazkiaren bidez ohartarazi zaien». Lekua ederki ezaguna da, egunero jende franko igarotzen baita bertatik.

Buzunaritze

Trinkete berria estreinatuko dute

H. GOROSTIAGA / BUZUNARITZE

Trinketea oso handia ez bada ere, norgehiagoka ofizialeterako derrigorrezkoak diren neurriak betetzen ditu, eta kanpoaldean, berriz, eraikinaren murruez baliatuz, plaza libreko frontoi ederra egin dute. 'Ongi Etorri' izena ezarri diote trinketeari.

Inaugurazioa goizeko 9.30etan hasiko da, mezarekin batera. 10.05 orenetan xuxen, Dominique Boutineau Pilota Federazioko lehendakariak irekitze mintzaldia egingen du eta, ondoren, pilota partida ikusgarri bati utziko zaio lekua. Pilota partida xarez jokatu da eta iaz Argentinako afizionatu mailako finalean izan ziren bi taldeak izanen ditugu aurrez aurre. Frantziako taldean Frantxoa Hourcade Donapaleukoa eta Mikel Funosas Kanbokoa, txapel-dunak, ariko dira eta aurkariak Lopetegi eta Molina izanen dira, Espainiako talde gisa. Azken hauek mendekua hartzeko aukera hobirik ez dute sekulan izanen, Buenos Airesen 45-31 galdu baitzuten.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Demasa!

Ez nuen egin nahi. Tipo hori, bere ile gutxiko kokoxpekoa, bere begirada eta, batez ere, bere gelatxo ilun hura ez zitzaizkidan batere fidagarriak iruditu. Ez nuen ezezagun horren eskuetan utzi nahi, baina nekaturik nengo, eta amore eman behar izan nuen. Bihotzeko minez, ezezagunaren eskuartearen utzi nuen, eta tipoari begietara so eginez, ongi zaintzeko agindua eman nion ahal izan nuen modurik serioenean. Berak baietz, zainduko zuela esan zidan, baina bere irribarrean, bere begi gorritu eta erdi itxietan, gezurraren dirdira antzeman nuen.

Dirdira hori gau osoan zehar ene buruan dantzan ibili zen. Eguna argitzez zegoela, berriro ere gelatxo horretara bueltatu nintzen, presaka, arnas-estuka, eta bihotza txikiturik. Gau hasierako tipo bera bertan zegoen. Bere begiak lehen baino askoz gorrituagoak ageri ziren betazal kasik itxien atzetik. Egoerari hondamenaren kiratsa zerion. Tipo hark ordea, sekulako ezustekoa eman zidan: «Hemen duk hire txupa!».



Demasa! Tumatxa! 'Txupategiak' funtzionatu zuen! Dudarik gabe, hura izan zen Eguzki Irratiaren joan den larunbateko kontzertuaren lorpenik handiena. Bai, aretoa ederki apaindu zuten, 3.000 lagun elkartu ginen bertan, musutrukeko autobusek primeran funtzionatu zuten, taldeak primeran aritu ziren kontzertuak iraun zuen hamaika orduetan zehar, eta finean, giroa oro har itzela izan zen. Bai, kontzertu beran Patagonia, EH Sukarra, Zarama, Huajoloteak eta Drindots eszenatoki beraren gainean biltzea sekulakoa da.

Haatik, 'Txupategia' izeneko beroki gordelekua izan zen, nire uste apalean, zoragarriena, hunkigarriena. Nori ez zaio inoiz txupa zikindu kontzertu batean beste hainbat txuparekin batera lurrean, aulki batean, hesian edo auskalo non utzi duelako? Nori ez diote inoiz kontzertu batean txupa lapurtu? Joan den larunbatean, El Soto industrialdean, kontzertuak sailkatzeko modu berri bat jaio zen. Hemendik aurrera kontzertuak txupategidunak edo txupategigabeak izanen dira.



A. BARANDIARAN / UREPELE

Urkiaga. Aldude. Gaua. Elurra bazterrean eta horma errepidean dira lagun bakarrak. Esnazu, Urepele. Goizegi heldu gara, eta herriko ostatuan esperoan. Zarrakaztelu eta Bardeei buruz ari dira solasean herrikideak, sartu eta «bonne nuit» batekin agurtu ondoren. Herrien arteko adiskidantza aferak. Euskara eta frantsesa, nahaspilan. Ricard eta garagardoa. Ordua heldu eta «Adio» da agurra. Zerbait bada.

Abisatua zigun Mixelek hau zela garai txarrena solasteko, eta, izatekotan, gau aldera behar zuela. Larunbateko zortzi t'erdietan. «Hori ordua elkarrizketa baterako!» lagunek, baina behin han, ezin goxoagoz Airetarrekin. Mixel berandutu da zertxobait, eta familia osoarekin afaldu ondoren, artzainak mesfidantzaz begiratzen dio grabagailuari. Segituan desagertuko den mesfidantza.

EGUNKARIA.— Esan didate bertsolaritzaz hitz egitea ez zaizula gehiegi gustatzen.

MIXEL AIRE.— Nork erran dauzu hori? Ez, ez da egia. Artzaintzaz gehixeago badakit bertsolaritzaz baino, baina bertsolaritza gustukoa dut, bai.

Haurrak telebistaren aurrean eseri dira, eta sukaldian gelditu gara Mixel eta Mari Mixel bere emaztearekin, patxaran eta kafearekin, grabagailu eta koadernoarekin. Kanpoan ateri da, baina ilun-iluna da gaua Pokomotzenez.

EGUNKARIA.— Lehendabiziko bertsoa zure arreberen komunionean bota zenuen. Gogoan duzu oraindik?

AIRE.— Bai, bai!: 'Arreba maite maitea onar zizu ene zorianak/Gu zuri esker bait gaude hemen goxotasunean denak/Lagun zaitzala gaur hartu duzun Jesukristo gure Jaunak/beti maitatzen orai artean bezain zure aita-amak.

EGUNKARIA.— Eta bat-batean bota zenuen, ez zinen urduri jarri edo?

AIRE.— Bai, egon nintzen pentsatzen bertsoa botatzeko eta botatzeko... Ordu erdi bat ari nintzela pentsatzen. Hogeita bi urte nituen eta han zen Hernandorenak, eta aitak ere, alimaleko poza hartu zuen, esperantzaz beti gixajoa.

EGUNKARIA.— Hortik Ameriketara joan zinen. Han bertso gutxi...

AIRE.— Han batera ez. Lanean ongi, baina beti hona etortzeko gogo. Ordu artean jende asko joaten zen hemendik harat, baina ni izan nintzen azkenetarik. Gerroztik ez, irabazi ere ez baita egiten. Artzainek han irabazten zuten, lan izanez gero, hemen be-rean, Baionara joanez gero edo.

EGUNKARIA.— Badakizu orain artzain gehienak peruar eta mexikarrak direla?

AIRE.— Nik han ezagutu ditudan artzain onenetarik Javier gazteluarra zen, hemen sekula ardirik ikusi ez zuen mutil gazte bat. Eta



Mixel Aire, Pokomotzenezeko sukaldian.

ALBERTO BARANDIARAN

Mixel Aire 'Xalbador II', Nafarroako bertsolarien txapela hiru aldiz jantzia, urepeldarra, eta artzaina, aita bezala. Batez ere artzaina, aita ez bezala. «Hi xintxoegia haiz bertsolari izaiteko» esan omen zion behin Xalbador goraiatuak, eta aurtengo Nafarroako txapelketan, menturaz, ez duela parte hartuko dio. «Gurea amaitu da».

Artzain eta zintzoa

bere aldean zen Bernardo, mutil ona. Landetan eta artzain ibilitakoa, eta artzain txarra.

EGUNKARIA.— Berdin da, beraz, nongoa izatea, baina zein izatea?

AIRE.— Bai, zein izaitea da. Peruarrek eta mexikarrak berdin izaiten ahal dira onak edo txarrak ere. Baina euskalduna, hala ere, xintxoagoa da, han egoiteko. Horiekin ezin duzu onartzen ahal. Mexikarrak eta sartzen dituzu ardiak zaintzen eta ikusten badituzte hor emakumeak, ardiak utzita joanen dira haiengana. Euskaldunak ere menturaz batzuk, baina... horiek, denak. Horietan xintxorik ez zen izaiten. Tabernara joaitea eta jostatzea maite dute.

EGUNKARIA.— Artzainak eta, berez, nahiko bakartiak dira, lana ere horrelakoa delako. Nola ermaten ahal da hori bertsolaritzarekin, jende askoren aurrean kantari ateratzearekin? Uste baitut inoiz esan duzula plazaz plaza ibiltzea ez duzula maite.

AIRE.— Nik maite dut bakarrik egoitea... bakarrik baino ardiekin egoitea. Eta ardiekin egoiteko nahi dut bakarrik izan. Jendearekin ere bai... etxeko jendeak eta, bertzeek ez dezazkete nik baino gehiago maite izan, bainan ez naiz ni plazara joan eta horietakoak. Beti nahi dut nik ahal be-

zain fite ene lana bukatu eta harat itzuli, ardiekara.

Mixelen zain geundela atera da jada bertsolari txapelketaren gaia, eta afaria bitartean ere aipagai izan dugu. Nafarroako eta bereziki Euskal Herrikoen ondoren, minduta eta etsita zegoela aditua genuen, baina hori baino horrelako lehiatan gehiago parte hartzeko gogorik ez duela antzematen zaio: «Gurea amaitu da». Bertsolaritza gogotik maite baina plazaz plaza ibiltzeaz nekatuta dagoenaren antzera mintzatzen da Mixel, eta hala eta guztiz ere, lana eta bere «ezintasuna» paratzen du argudioa, 'erretiratzeko'.

EGUNKARIA.— Orduan, plazetara kantatzera ateratzen zarenean?

Nik maite dut ardiekin egoitea. Eta bertsotan beti nahi dut ahal bezain fite ene lana bukatu eta harat itzuli, ardiekara».

AIRE.— Bati lana gogoan. Xanpun denok aunitz maite dugu, lagunekilan bera baino goxoago eta atseginagorik ez da, eta beti oroitzen naiz behin kantatzera joan ginela biok eta autopistako peaje batean harrapatu nuen eta arrunt triste zegoen, emaztea minak hartua utzia zuela eta. Baina gero afaria eta bertso saioa egin, eta Xanpun ez zen oroitzen emaztea bazuela ere. Gure etxerat ezin bildu gero! bertsolariak hala behar luke eta aita zena eta hala ziren horiek. Aita, irten eta gero, ardiak maite zituela eta... harek hango giroa maite zuen, gero!

EGUNKARIA.— Eta zu, bertsolaria joaten zarenean, bortxaz ala?

AIRE.— Ni bai, bortxaz. Bon, bertsolaritza aunitz maite dut, eta maite izan dut eta maite dut orai ere, baina aitak eni erraiten zintuan: 'hitarik ez duk bertsolaririk aterako. Xintxoegia haiz'. Bertsolaria izaiteko ez du xintxo izan behar, behar du izan ostatu gizona, eta lagun artekoa. Behin Oartzunen bazkaldu ginuen Mendizabal, Lasarte eta Lazkao Txikirekin, eta Mendizabal hasi zen bertsotan aritzea zaila zela eta, lana zela eta, eta parrandak eta neskak gustatzen zitzaizkiola... eta Lasartek erran zion:

'Bertsolariak horiek denak behar ditu. Bertsolariak behar du izan langilea, parrandazalea, neskazalea, denak behar ditu bertsolari ona izateko'. Behar du lagunekin goxatu. Eta badira ere arront xintxoak eta, baina lehengo bertsolariak parrandero handiak ziren.

EGUNKARIA.— Beti esaten da, ordea, Mixel Airek kantatu behar duela, eta Manolo Arozenak aipatu zuen duela gutxi zuk ez abestea Iparraldeko bertsolaritzaren heriotza izan zitekeela...

AIRE.— Bai, orain Nafarroako txapelketaz hasten badira hizketan jinen dira hona, bainan... ez dakit. Oroitzen naiz joan den urtean Alkhatek ez zuela parte hartu behar eta, Joxemanuel Irigoienek erraten zidala bertsolaritzak aurrera egin behar zuela, eta indar hura baino gehiago behar zuela, gaizki egin zuela ez parte hartzean. Nik aurten ez banu parte hartuko, edo ez badut parte hartzen, berdin-berdin erranen dute. Eta pena izanen dut eh! bainan ordea, joan eta deus ez egiten. Niri hainbertze kostatzen zait egiten dudan guti hori... eta badakit deus ez dela, baina hainbertze kostatzen, eta gero ezin egin zerbait. Hala ez du balio. Gainera, txapelketan kantatu bakarrik eta gero bertze guztian



txapelketara artean ez kantatu. Hola ez daike.

EGUNKARIA.— Baina bertso saioetarako deituko balizute, hartuko zenute parte?

AIRE.— Gustura hartzen nuen parte ibiltzen nintzelarik. Hasi nintzelarik lanen egiteko maneran eta bazen orain baino erregaioa. Baginuen mutil bat gurekin ibiltzen zena, morroi bat, baina hura ere ezin zen atxiki eta... badakizu ardiekin zein guti irabazten den? Haren ordaintzeko behar diren gauzak, zuzen egitekoan, izigarri garestiak dira. Hartakotz utzi ginuen mutila. Orduan, ni, bakar-bakarrik gelditu nintzen, eta haurrak eskolara abiatu artean, etortzen ziren nigana bertsoetarako, eta ni joaiten nintzen. Baina orain haurrak eskolan, eta ni bakarrik ari naiz lanean, eta ez dut uzten ahal ardiak.

EGUNKARIA.— Orduan, erabaki duzu parte ez hartzea?

AIRE.— Ez, ez dut erabaki, baina ez dut uste joanen naizenik.

EGUNKARIA.— Badakizu jende askok pena hartuko duela...

AIRE.— Pena... ez dakit. Baina Nafarroako Txapelketako epaimahian ere nik badakit, menturaz bat baino gehiago ere, baina nik badakit bat badela ni ikusi nahi ez nauena. Nik ere hura berdintsu. Holakoak badakizularik badela epaimahian, ez dakit orain artean joan izan naiz bezainbat aldiz ere, zertarako joan naizen ere. Lehenago erran izan dut ez nintzela joanen, eta zinez ari nintzen. Eta azkenean joan nintzen. Gero hemen haserretu ginen, Ezpondarekin, eta Alkhatekin, haren laguna izateagatik, ere bai. Eta gaizki da hori ere, eta pena bada, ez enetako baina bertsolari zari kalte egiten baitiogu horrela.

EGUNKARIA.— Eta bada Iparraldeko bertsolari zari altxatzerik?

AIRE.— Nik ez dut ikusten. Eskolak eta eskolak aipatzen dira, eta horiek izigarritzako bertso politik egingo dituzte, baina ez da uste izan behar denak bertsolari gaitzak direla. Bada beste bertsolari gaitz zenbait eskola hartan ibiltzen ez dena, eta hemengo eskolatik nik ez dut esperantza. Izan daike noizbait aterako den bat, baina nola behar du ez baldin bada batiere girorik atera? Ez da egiten ahal.

EGUNKARIA.— Iparraldeko bertsolari zari gaitzak bada, zer galduko da?

AIRE.— Nik aunitz maite dut, eta bertsolari zari gaitzak ez dut erran behar «pena izanen dut» erran behar dut «pena dut». Hemengo bertsolari zari gaitzak da orai. Ez da urte guztian egiten... Bi saio egiten dira urtero: Saran eta Urepelen. Ez da bertzerik.

EGUNKARIA.— Kantatzeaz aparte idatzi egiten dituzu bertsoak?

AIRE.— Bai, egin ditut batzuk, bainan guti.

EGUNKARIA.— Eta gustorago egin kantatu baino?

AIRE.— Bai, idaztea gustorago.

«Ene baitan bada pesimismoa»

A. B. / UREPELE

«Berri triste bila etorri zirade», dio Mixelek Aldudeko egoera aipatzen duenean. Bertsolari eta artzain bezala, bere erranetan, aitarekin zerikusit gutxi baldin badu, antzera mintzatzeko dira Euskal Herriaz eta euskaraz, aberriaz eta etorkizunaz. 'Batzu herriaz orroit, euskaraz ahanzi; bertsek euskara maite, herria gaitzetsi; hizkuntz ta herria berex ez doatzi; berek nahi daukute konpreniarazi! bata bertzea gabe ez daizkela bizi', idatzia zuen aitak, eta semeak ere euskara aipatu du Euskal Herria Urepeletik nola ikusten den galdetu diogunean. «Urepelen badira euskararen aurkako jendeak, eta ez dakit zer arrazoi duten hala izateko. Nik uste dut arrazoi bakarra dela alde girenak ez gaituztela maite. Hemengo zorigaitza aunitz lekutan ere bada. Euska-

raren aldeko jaialdia edo badelarik, zenbait herritar etorri, eta multzoak biltzen dira. Baina etorriak ez direnak kontatzen hasten balitz, alde diren batendako aurkakotarik baleizke hoge. Orduan... Ez da argi handirik ikusterik».

Krisi sakonean sartuta inguru osoa, iragan ziren Ameriketara joan beharreko urteak, baina egoera baikor izatekoa ez dela dio Mixelek. «Ene baitan, behintzat, bai, bada pesimismoa. Menturaz gehiegi ere. Aitak idatzi zituen bertso horietan ordukotzat bazen: 'Ama Euskal Herria naiz naigabetua/ uztera doalagotz betikotz mundua'. Horiek ere denek ez zitzaizkien gustatzen, batzuk ez zirelako hain pesimista. Baina harek ikusia zuen naski ordukotz zer heldu zen». Euskararen galera, ahaleginak ahalegin, aurrera doala dio, etsita.

«Nik Urepele ongi ezagutzen

dut, eta hemen denek dakite euskaraz, bainan ez dira mintzaten. Zakurrak edo ardiekin edozein urepeldarra mintzatu da euskaraz, eta bere kidekoak harrapatu eta frantsesez. Ardiak eta zakurrak frantsesez mintzaten direnak baino argiagoak baitira, hartako...». Abertzaleen artean ere euskara baztertu izanaz mintzo da. «Hemen badira abertzale xintxoak, bainan ez dira euskaraz mintzaten. Ari dira manifestaldiak joaiten, baina gero aurka egiten dute frantsesez mintzo badira. Hori beraiek ez badute ikusten, ez dakit balio duen ere erraiteak. Ez dira etsaiak, baina ari dira kalte egiten». «Gu orain zahartzen ari gara, eta gazteagoekin beharko lukete euskaraz. Badira borondatea dutenak, baina ez dakit aski badiren altxatzeko. Etsaiak hemen batzen baldin badira, eta besteok bakan-tzen...».

Hemengo apezka joan zen iaz, eta asko sentitu nuen, eta egin nituen borts bertso, eta errex egin ere. Bertze batzuetan, berriz, idazteko eskatu didate, eta egin nahi, baina ezin. Bertzenaz aunitz maite nuke idaztea, bertsoak edo edozein gauza. Egun batez ardirik gabe eta xahartuta banintz, gustura, denbora ezin pasatuz, beti hori buruan dut. Herriko berriak berak emaita maite nuke. Irakurtzea ez dut maite, baina idaztea bai, maite dut.

Mari Mixel hitzik esan gabe da ondoko eserlekuan, baina adi-adi solasaldiari. Soilik Mixelek zerbait galdetzen dionean mintzatzeko da, eta irri egin senarra idazteko asmoez ari delarik.

EGUNKARIA.— Aitak idatzi zuen bertsolari batek osatu duen bertso

libururik ederrena, 'Odolaren mintzoa'. Zer dauka Mixelek Ferdinand bere aitarengandik?

AIRE.— Beren aitaz bertzeek daukaten oroitzapena. Ene aita bezala aunitz maite eta estimatzen

Hainbertze kostatzen zait bertsoan egiten dudana guti hori... eta gero ezin egin zerbait. Hola ez du balio».

nuen, bistan da. Bertsolari bezala, enetako ez da Xalbador bezalako bertsolariarik. Ez zait goxoa aita nuelakotz erraitea hori, baina

bertzenaz liburua izigarria da. Ni ez naiz aspertzen ahal liburuaren irakurtzen. Bai bertsoak eta bai ere zein untsa idazten zuen. Hura irakurrita ere, joan bertsoetara eta nik ez dut egiten ahal deus ez, baina txapelketara joaiten erraiten dute zenbaitetik ariketa egin behar dela... Ariketa egiteko manierarik onena, orai ere, 'Odolaren mintzoa' hartu eta han irakurtzea da.

EGUNKARIA.— Aitarengandik, baina, zerbait gelditu da...

AIRE.— Bai, bainan haren aldean gure zerbait hori deus ez da. Hartarik gelditu zen bertsolari zaren amodioa, eta bertsolari zaren amodio hartarik, bertsolari zaren amodioz, saiatu giren puxka saiatu, baina gero, ordea, deus ez denik, saiatuta ere.

Max Mad eta Zuberoako pastoralak

● Gure herrira pelikula arrunt berandu ailegaten zaizkiguzu. Horrek bere alde onak eta txarrak dizkizu. Esate baterako, gure herrian dinosaurioak ikusi orduko, munduan barrena pinpilean diaudek txerri kosmikoak. Kevin Costenerren Robin Hood ez dugu ikusi eta dagoeneko Mel Brooks-ek bere parodia ateratu ditu. Hala ere gorago esan bezala, horrek haren alde onak dizkiozu. Zinemara joaten garelarik klasiko-klasikoak ikusten ari garela segurantz dizugu, mundu guztiak gorapatu zituen pelikula miresgarriak. Aste honetan 'Max Mad II, Errepideetako gudaria' estrenatu dute.



Horren susmoa bageneukazun. Nonbait, gure antipodetan edo, gure egiten ditugun pastorek haren anaia-arrebarek izan behar zizkizuten. Eta holaxe gertatu zenuen. Australiatik diatorkiguzi 'Max-Mad II, Errepideetako gudaria'. Eta gustokoa dizugu australiarrek eginiko pelikula. Lekua herriko plaza duzu, gure pastoraletan bezala. Berrikuntza bakarra, basamortuan dagoen herri txiki batean kokatu izana. Antzeslariak, protagonista kenduta, ezkongai diren gazteak, eta herriko jendea, profesiodun ez dena. Lagun aunitzek maskaradaz aurpegia estaltzen dizute, gure herrietan egiten den gisa. Ekintzan ere onen eta gaitzuen ibilera berezia duzu. Onak patxadan eta ohoretu ibiltzen ohi dituztu, gaiztoak, aldiz, pausu handiak emanez, garrasiak atereaz eta imintzio beldurgarriak eginez. Onak zuriz jantzita agertzen dituztu eta mauruek beltzez, ordea. Punky-en itxura hori polita duzu, egunera arrunt ongi ekarritakoa. Heroiaren historia ongi burututa diagozu. Hasierako lehen peredikuak ederrak dituztu eta azken peredikuarekin bukatzen duzu filma. Emanaldi labur komikoak ere badizkizu, Erdi Aroko misterioetan egiten ohi zenez, nahasian gauza gordin ausartak eta tragediazko hauek gairik jasoena.

Dudarik gabe, australiar hauek lagun xelebreak dituztu. Pentsatu beharra dizugu. Heldu den urterako 'Max Mad II, Errepideetako gudaria' antzetzeko beharko genukeela bat baino gehiago pentsatzen hasiak gaituztu.

G. Hirevon

(Jeremias Erroren adixkide zuberotarra)




«Badira ardiekin eta txakurrekin euskaraz eta lagunekin erdaraz mintzo direnak».

ALBERTO BARANDIARAN



XAKEAN



Iruñea Hiriko Torneo Itxiaren 4. jardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 30ean jokatu.

Jordi Magem, 2.505 ELOkoa (Katalunia)— Felix Izeta, 2.510 ELOkoa (Euskal Herria).

1.e4,d6; 2.d4,g6; 3.Zc3, Ag7; 4.Ae3,Zf6; 5.f3,c6; 6.Dd2,b5; 7.g4,h5. Gerora, ahultasuna sortuko du jokaldi honek, zaldiaren peoiak euskarri bat galdu duelako. 8.g5,fZ-d7; 9.f4,Ab7; 10. Ag2, Zb6; 11.b3,8Z-d7; 12.Zh3,0-0; 13.f5,Ge8; 14.0-0,e5. Oso kili-kolo dago 'g6-ko' peoia, eta mugimendu honek ez dio batera lagundu. Agian, 'e6' eta 'd5' jokaldiek gehiago arinduko lukete presio hori.

15.d5,Dc7; 16.c6,Ac6; 17. aG-d1,Af8; 18.Df2,Zc5; 19. Zd5,Ad5. Azkeneko lau jokaldiak behartuak izan dira. 20.d5,aG-d8; 21.Eh1,Zc8. Ikus koadroa. Txuriek orain arte oso ondo eraman badute partida, hemendik aurrera zorroztasun ikaragarriaz hautsiko dute beltzen defentsa.

22.c3,Ag7; 23.Dc2,Eh7; 24.Ac5,c5; 25.Ae4,Gd6; 26.g6 xa,g6; 27.Gf6,Eg8; 28.Ag6, Ge7; 29.fG-f1,Zb6; 30.c4,c4; 31.c4,Dc8; 32.Af5,Da6; 33. Gc1,Da3; 34.De4,Gd8; 35. Gc2,Gf8; 36.cG-f2,Eh8; 37. De2,Gf5; 38.Dh5 xa,Eg8; 39.Gf5,Zc4; 40.g6. Beltzek amore eman zuten matea zetorrela eta.

Kaixo laguna: Idazten dizut gure egoera (Hego Amerikaren egoera) zabal dezazun. Gogoan duzu Brasiliatik etorritako gizona? Urre meategi batean lanean zegoen bere emaztea eta sei seme-alabak mantentzearen, eta adierazi zidanez meategi horretako egoera benetan txarra da, ez da garbitasunik, airean gaixotasuna nabaritzen da, lanean ihardun zuen kanpamenduan egoera benetan latza zen, hilabetean gutxienez hamar egun gaixo edo guztiz ahuldurik egoten zen, lan egiten ez zuen egunetan dirurik ez, eta lan egiten zuen egunetan diru gutxi, ezertarako heltzen ez dena. Urre meategi hau dagoen lekuan, lehen, orain dela 70 urte arte, gure arbasoen bizileku izan zen milaka eta milaka urteetan, eta orain... buruak altxatuko baltuzte, zernolako ustekabea, eta gu lotsaturik beste leku batera zuzendu beharko genuke gure begirada. Dena gizon zuria etorri baitzen, lurralde berriak, diru ugari... gehienbat diru egarria baitzeukaten, beraien lurraldeko produktuak ustiatu ondoren beste leku batean jarri zuten beraien begirada krudela, eta han geundenak guztiz izorratuta, madarikuak! Madarikatzen dut gizon zuria eza-gutu nuen eguna.


Duela gutxi bostgarren mendeurrena ospatu zuten, esanez bi herrien batasuna izan zela, europearra eta hego amerikarra, baina ez, mendeurren honek beste gauza bat adierazi nahi du, herri askoren desagerpena, beraien kultura, erlijio eta bizimoduaren deuseztapena. Zuek gizon zuriok, gure borrokaren alde egon zaitezke, baina urruti gaudenez ze axola, edota beno, ados nago, baina zer, ezerrez, ez duzue gugandik ezer egiten, gure egoera ezin duzue ulertu, gure

Amazoniatik

egoera bakarrik telebistan ikusi duzue, baina zuen etxe eder eta komoditate osoz oso ondo egonen zarete, besteetaz axola gabe.

Badakigu gure guda galdutzat eman behar dugula, baina gutxienez egoera hobetzen badugu, asko lotu dugula esan nahiko du. Horregatik hemendik, zuri idaztea pentsatu dut, azken aste honetan malariak jota nagoelako, eta badakit nire egoera larritu egiten dela. Gainera botikak ez ditugu eta gero eta gehiago gara hemen. Honen errudunak gizon zuriak dira, noski, lurralde ezezagun haietatik gaixotasun arraro eta txarrak ekarri baitzizkiguten.

Hemendik galdera bat egin nahi nizuke. Ba al dago lekurik gizon zuriak



Miren Navaz

(TXANTREA)



zapaldu ez duena? Ze arraio, pakean utziko bagintuzte, ez gu bakarrik baizik eta Afrikako jende beltza, Ipar Amerikako indioak... Gizon zuria, zuri izateagatik besteak baino gehiago direla uste duzuen, ze pena ematen didazuen, zeren ez dago munduan gizon hoberik bestea errespetatzen duena baino.

Honekin nire eskutizat bukatutzat ematen dut, poz handia emango lidake hortik gugandaik zerbait egiten baduzu.

Agur.

Arkakusoak zirela medio

1258. urtean jazo zen, Iruñeko Jaun Done Nikolas kalean. Hildako kopurua ez da ezagutzen, azken finean gerrate bilakatu bait zen afera. Okzitaniar eta euskaldunek parte hartu zuten nagusiki. Gerrate honen iturburu arkakusoak ditugu. Kasu honetan ibili dugun informazio iturria Santos García Larragetaen 'Documentos en lengua occitana' liburua da, 45. agiria hain zuzen ere.

Honela dio agiriak:

'1296. urtean (hau da 1258. urtean guretzat). Oraingoek eta

etorkizun daudenek jakin dezatela gaur. Otsailaren zortzian, ostirala, Peri Julian den honek aditzera ematen duena; nola Montpelierren nintzelarik, Gilen jaunaren etxeurrean, jaten eta edaten, Baiona, Montpellier, Iruña eta Bugoseko beste solaskideekin eta Iruñeko Poblazioiko Aznar ageri den. Nafarroako berririk ote zuen guk galdetu eta hark esan Nafarroan ogi eta ardo aunitz eduki eta pakean bizi. Orduan guk galdetu ea zekien zerbait Iruñeko suteaz, han ego-na bait zen eta ea Iruñeko burgo-

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atea joka

Okzitaniarrek sutea Nabarrera auzoko euskaldunei aurpegiratu zieten, eta elkarren arteko gerratea hasi zuten.

ko jendea erruduna ote zen, eta hark ezetz, ez zirela errudunak Burgoko emakume eta gizonak, bera baizik, berak bere eskua-ekin su eman ziola, eta ez zuela inoren laguntzarik izan, ez emakume eta gizonen laguntzarik, eta inor ez zigortzeko, eta haien arimak ez madarikatzeko. Berak egin zuela, eta nahi gabe gainera. Guk galdetu nola izan zen afera eta hark esan goatzera joatekoa zela, eta goatzean ere bere iloba sartu, hau lokartzen dela, eta ilobaren arropako arkakusoak akabatzen hasi, eta gero kandela batean erretzen zituela, eta halako batean eskua goratu eta kandelako suak espartzua hartzen duela, Sua itzaltzeko ahalginak egin zituela, baina sua menderatu ezinik eta iloba

etzanda zegoen ohean sua erori eta ezin izan zuela iloba salbatu eta guztiz lotsaturik iloba ez salbatzeagatik bere sorterritik kanpo zebilela. (...) eta nik galdetu nion 'zuk ez daukazu beste ogibiderik?' (...) eta berak esan zidan Palestina joan behar zuela (...) eta nik sos bat eman nion Jaungoikoaren izen dohatsua dela medioz (...)

Haren gibelean gerrate bat utzi zuen. Okzitaniarrek sutea Nabarrera auzoko euskaldunei aurpegiratu zieten, eta elkarren arteko gerratea hasi zuten. Palestina gudari joan zen, arima salbatu nahian. Goian bego Iruñeko Poblazioiko Aznar jauna, zeinek nahi gabe bere sorterrira erre bait zuen.

Nafarroako herri txikietako emakumeen heziketa eta bizimodua hobetu nahian, Futura 94 izeneko kanpaina antolatu du Emakumearen Zuzendariordetzak. Hil honetan hasi eta ekaina bitartean, laurehun biztanle baino gehiago dituzten 40 herritan egingo da. Emakumeen partehartzea sendotu, informazioa eskaini eta heziketa hobetu, hori da asmoa.

Herrietako emakumeak piztu nahian

T. SATRUSTEGI / IRUNEA

Futura 94 herrietan bizi diren emakumeen heziketa sendotzeko kanpaina antolatu du Nafarroako Gobernuak Emakumearen Zuzendariordetza Sailak, Ongizate Sozial, Kirol eta Etxebizitza departamentuaren laguntzarekin. Tailer batzuen bidez, laurehun biztanle baino gutxiago dituzten 40 herritako emakumeek beren formakuntza hobetzeko aukera izango dute. Urtarrilaren azken hamabostaldian hasiko da kanpaina, Tafalla aldeko herrietan. Ondoren, eguraldia hobetzearekin batera, mendialdeko eskualdetara eramango dituzte tailer ibiltari hauek.

Finean, kanpaina honen asmoa emakumeek jasaten duten gizarte eta lan bazterketari aurre egitea da, eta hirietako diskriminazio arazoak asko badira ere, herrietako egoera askoz okerragoa da. «Aukera pertsonal gutxi dituzte herrietako emakumeek, eta beren partehartzea eskasa da, arlo guztietan. Lan merkatuari dagokionez, rol sexistak nagusitzen dira, eta emakumearen eginkizunak mugatu. Gauzak horrela, gazteek beren etxebizitzetan dute zeregin bakarra, kasu gehienetan», Reyes Cortaire Emakumearen Zuzendariordetzako buruak azaldu zuenez.

Egoera hori izanda, Sailak kanpaina bat martxan jartzea erabaki zuen, eta horrela sortu da Futura 94. Aurkeztu berri duten

hau kanpainaren lehen fasea da, ekaina arte iraungo duena. Ondoren, bigarren eta hirugarren faseak egingo dituzte, guztira, 1996a arteko programa osatuz. Lehen fasearen kostua 23 milioi pezetakoa izan da, eta herrietatik 20 tailerretan gastatu dira.

Hiru helburu azpimarratu zituzten egileek: dituzten eskubi-deen, baliabideen eta bestelako gai batzuen informazioa eskaintzea, herrietako emakumeen interesak kontuan hartuz; mundu erruraleko gizarte eragileen heziketa sendotzea, bertako emakumeen egoera ezagutu dezaten; eta, azkenik, emakume erruralen partehartzea indartzea.

Hori dela eta, hiru tailer mota antolatu dituzte, herriz herri eramango dituztenak. Bata, gizarte eragileei zuzenduta dago, bestea 'emakume aitzindariak' izango da, eta hirugarrena beste emakume guztiei eta gizarte osoari eskainiko diete. 'Emakume aitzindariak' jarrera berriak onartu eta besteen aurrean eredu gisa erabiltzen direnak dira. Beraiantzat zuzendutako tailerretan emakume hauen partehartzea sendotzen saiatuko dira antolatuzaileak.

Hirugarrenean, informazio ugari eskainiko dute, bai eta emakumearen egoera datuen bidez aztertu eta antzeko gaietan sakondu ere. Tailer honetan komunikabideak erabiliko dira, irratia batez ere, herrietan asko



Herrietako emakumeek partehartze txikiagoa dute gizartearen.

entzuten baita. Kanpaina osoan teknika berrienak erabili dituztela azpimarratu zuen Cortairek.

Lehen esan bezala, tailer hauek ibiltariak izanen dira. Herri bakoitzean lau edo bost egunez jarriko dira martxan, eta bakoitzean egutegi aproposa osatuko dute. Lan taldea lau kideek osatuko dute: koordinatzaileak, gizarte languntzaileak, monitorea eta osasun laguntzaileak.



5B izeneko zonako 40 herri aukeratu dira.

«Garrantzitsuena, beraien jarrera»

A. B. / IRUNEA

Proiektua aurrera eramateko Madrilgo La Productora de Servicios S.A. enpresa aukeratu du Nafarroako Gobernuak, bera izan baitzen Nafarroako emakumei buruz ikerketa egin zuena. Esperientzia handikoa, horrelako lan bat «aitzindaria» izango dela azaldu du Isabel Ameztoti Nafarroako koordinatzaileak, horrelakorik ez baitute egun arte egin. «Egin izan ditugu informazio tailerrak, hau da, hauek bezalako ikastaroak, baina gazteekin, eta beste aldetik, lan egin izan dugu herrietako emakumeekin. Ikastaro hauek beraz, aurretik egingakoen nahasketa antzeko zerbait izango dira». Futura 94, baina, ez da ekintza hauetan amaituko, eta aurrerantzean egitasmo gehiago aurrera eramateko baliagarria izango dela dio Ameztotik. «Ez da izango ekintza bakar eta soila, ongi ateratzen baldin badira segida izango baitute beste ikastaro zenbaitekin».

Ikastaroak, mamian berdin-

tsuak baina desberdinak izango dira zonen arabera, eta horretan zeresan handia izango du emakumeen jarrerak. «Gerta liteke» azaldu du Nafarroako koordinatzaileak, «inguru batean emakumeen jarrera oso ona izatea. Ikastaroak, orduan, askoz ere dinamikoagoak eta biziagoak izango dira eta emaitzak, ondorioz, onuragarriagoak. Beste inguru batzuetan kontrakoa gerta liteke, eta lehen mailan gelditu».

Ikastaroen hartuko dituzten 40 herriak bost zonatan banatuko dira, eta zona bakoitzean eta bakoitzean horretan egingo da lana, bukatu eta beste batera joan arte. Hastapen tailerrak herri guztietan egingo dira, eta 24 orduko iraupena izango dute. Agente sozialendako tailer bana egingo da zona bakoitzean eta informazio tailerrak, berdin. Ikastaroen arrakasta jendearen jarreraren baitan dagoela azpimarratu du Ameztotik. «Guretzako oso emaitza ona izango litzateke emakumeen aldetik partehartze handia lortuko bagenu».

«Aterako gara gauden zulotik»

J. K. L. / IRUNEA

EGUNKARIA.— Jokalari botak eskegi zenituenetik zure ametsa Osasunako lehen taldeko entrenatzailea izatea zen. Gauzatu denean, ez al da ametsa amesgaizto bilakatu?

MARTIN MONREAL.— Postua hartu nuenean egoera nahiko zaila zela aski ongi nekien. Egia esateko, egoera honetan Osasunako entrenatzailea izatea ardura aldetik zama astuna da, baina aurrera begiratu be-

ere jaitsiera saihestu ahal izanen da. Garrantzitsuena zera da, aipatu talde horiek atzera egiten duten bitartean guk aurrera egitea. Bestela, akabo!

EGUNKARIA.— Zein da Osasunaren egungo egoeraren zergatia?

MARTIN.— Arazoa jokalarien buruan dago. Lan asko egin beharko dugu jokalariek euren buruarekiko konfiantza berreskura dezaten».

ere jaitsiera saihestu ahal izanen da. Garrantzitsuena zera da, aipatu talde horiek atzera egiten duten bitartean guk aurrera egitea. Bestela, akabo!

EGUNKARIA.— Zein da Osasunaren egungo egoeraren zergatia?

MARTIN.— Arazoa jokalarien buruan dago. Lan asko egin beharko dugu jokalariek euren buruarekiko konfiantza berreskura dezaten. Jokalari zaharrenek ongi dakite horrelako egoera larrietan egotea zer den,

ditu golak egiteko orduan, Zer dela eta?

MARTIN.— Psikosia daukagu, gola egiteko ezintasunaren psikosia. Dena dela, aukerak sortzen ditugu, eta zortea aldatzen denean hiruzpalau gol sartuko ditugula pentsatzen dut. Ordura arte sufritu beharko dugu.

EGUNKARIA.— Aste honetako 'ezkurrinaren' arabera, taldeari abiadura falta zaio. Ados al zaude?

MARTIN.— Bai, agian abiadura falta zaigu, baina arazoa ez da fisikoa. Jokalariak sasoi fisiko onean daude, eta esan bezala, arazoa euren buruan dago. Konfiantza eza dela eta, bizitasuna falta zaigu.

EGUNKARIA.— Bizitasun hori berreskuratzeko asmoz Luke eta Christiansen fitxatu dira. Badirudi ez dituztela, oraingoz behintzat, espero zitezkeen fruituak eman. Fitxaketa gehiago egingen da?

MARTIN.— Ez, jokalari gehiago ez dugu ekarriko. Egia esateko, bi jokalari horiek gehiago lan egin beharko dute. Christianenek, esaterako, denbora franko eman du jokatu gabe, eta entrenamenduetan gogor egin beharko du lan sasoi egokia lortzeko.

EGUNKARIA.— Noiz hasiko da Osasunaren berpizkundea?

MARTIN.— Ezin dugu amore eman. Oraindik partidu asko eta asko jokatzeko daude, eta lasaitasunez aurre egin beharko diegu guzti horiei. Guztion artean aurrera egin behar dugu, eta guztiok elkarri laguntza eskaini behar diogu. Hori egiten badugu, aldaketa aurki ailegatu da. Egun batetik bestera ezin da talde baten joko sistema aldatu. Osasunak urte askotan zehar erabili du Zabalzaren eskema, eta jokalariek ezin dute bat-batean eta besterik gabe nirea barneratu. Dena dela, azkar barneratuko dutela uste dut. Behar adina kontzentrazio eta kemen baldin badugu, aterako gara gauden zulotik. Gogoratu beharra dago duela zenbait urte talde ahulagoarekin horrelako egoerak gaintitzea lortu genuela.

Enrique Martin Monreal

OSASUNAKO ENTRENATZAILEA



SOSLATA

Emaitzen morroi

Ez dauka lan erraza. Pedro Mari Zabalza Osasun hainbeste urte egoteak utzi dio taldeari ukitu bat, jokatzeko modu bat, atarramendu ona eman duena, emaitzak emaitza. Azkarregi ahazten baita futbolearen. Baina, hala ere, espero zen erreleboa. Aurten bertan Ingalaterran aritua zen Osasunako hegaleko azkarrena izan zena, eta afizioa eta Zabalzaren arteko dibortziak bidea erraztu egiten zion. Kontua da ez duela entrenatzaile berriek duten konfiantza tarterik izango. Osasunak ezin du konfiantzarik eman. Emaitzak behar ditu. Horiek aginduko dute, eta laster zerbait lortzen ez badu, infantilekin ikusiko dugu berriro Martin.



JOXE LACALLE

harra dago, eduki badaukagu eta egoerari buelta emateko behar adina asti.

EGUNKARIA.— Liga amaierara arte geratzen den denbora horretan, zenbat puntu lortu beharko lituzke Osasunak egoerari buelta eman ahal izateko?

MARTIN.— Argi dago beste 22 edo 23 puntu eskuratuko bagenuituz promozio eta jaitsiera zuzeneko postuetatik kanpo geundekeela. Dena dela, hori teoria hutsa da. Seguruenik zenbait talde atzean geratuko dira, eta puntu gutxiagorekin

«Egungo egoera larri honetan, Osasunako entrenatzailea izatea, ardurari dagokionez, zama astuna da oso».

baina gazteenek ez. Orain arte egoera erosoan egon diren taldeetan jokatu dute beti, eta ez dakite negatiboekin jokatzeko. Batzuetan non gauden eta zer dagoen jokoan ez dakitela ematen du, eta hori arrunt ongi barneratu beharko dute. Gauden putzutik atera ahal izateko, guztiok ahal dugun guztia egin beharko dugu, eta bete-betean ari beharko dugu.

EGUNKARIA.— Etxeberria, Irigibel eta Martinen garai onak atzean geratu dira, eta Osasunak arazo franko izaten

NOISKIJATOR

© Zaldi Eroak

BRECCIA (MARPAZKIAK) ETA TXIAPAS OMENDUE...

